

GAZTE NAIZ

Bainan; Besteak zergatik alai...?

Triste nago ta ez dakit zergatik. Kaleak jai egunteko apainduak daude, nun nahi musika ta argi... Jendea pozik, ni triste. Analizatu egin naiz, nere tristurari arrazoi bat billatu diot, nere illuntasunaren arrazoi arkitu nahi izan dut.

Zergatik jentziaren aurpegiak alai daude eta nereak triste?

Zergatik uriko algarak; tabernetako bullak, argiak musikak, ez du nere espritu illuna argitzen...?

Pakea billatu dut... Mendietan arkitu nahi izan dut, ibaieetan, zelaieetan... Bainan ez dut arkitu ezta itxaso zabalean ere.

Musika, argi... Musika, txorien, aizaren, itxasoko olatuen... Musika, Zeruan, argia. Eguzkia hodei tartetik igesi nahiean... Bakartasunean, ni guziaren jabe. Nere pakea ez, bainan besteena. Munduko pakea ezagutu dut. Eta ikutu egin dut, basoetako zurgaitzak ikutuzean, zelaieetako toreak usaintzean, aizea indarrez aspartuzean...

Pakea ikusi dut, eta naska eman dit. Ez da nere barrerako arra kenduko duan pakerik. Besteen pakeak nere ezin egona geiago sentiarazteri dit. Besteen alaitasunak nere tristura geitu egiten du. Zergatik ote? Ezin ditut nere ingurukoak alai ikus Txarra naiz?

Beste urte bat joan da. Joan zait! Gazte ba naiz ere, triste, agurtu dut. Besteak alai. Nere tristuraren arrazoi? Ez dakit, ez nago ziur. Besteak esango ote didate beren alaitasunaren arrazoi?

Jentzia, pozik dago. Urte Berri on! Nun nahi entzun ditek Urte Berri on guzileri!... Bai guzileri...

Urte Berri on... Zaharren gazte zalarik, hil zen anai maiteari...

Urte Berri on... Semea galdu duan amari...

Urte Berri on, neri, zapalzailearen botari...

Gosez hiltzen dan haurrari...

Urte Berri on... Alperrik maitatzen duan neskatza...

Triste nago... Bizitzeko urte gufxiago ditutalako. Nere etorkizuna garbi ikusten ez dutalako. Urtearen bukaerak azken egunartuz korrika hoala adierazten ditutalako... Beste urte bateri aurpegia emateko kapaz ikusten ez naizalako.

Txarra naiz, besten alaitasunak illuntzen nauako? Besten-pozak mintzen nauako? Ni horregatik bai nago triste... Bainan besteak? Besteak zergatik daude alai...? Zer dakarkite? Urte Berriak pozik-egoteko? Urtearen bukaerak zer pentsa-arazten die?

Izango ote du Fabiolak desiratzen duen haurra...?

Urte Berriko "Tour de France" nori irabaziko ote du...?

...Musika ta argi... Bakardadean ez dut nahi pentsatu ta lortzen ba dut ere badirud haiek sortutako arra ez dela beoiekin batera joaten, betiko nere barrenian gelditzen direla baizik. Horregatik pentsatzen ba dut eta ez ba dut ere, beti dut nere barnean haiek utzitako gustu garratza... Pentsamendu batzuek utzitako oñazek ez nau uzten. Inoizko pentsamenduak betirako miña utzi dute nigan.

Urte berri... Zahararren jarraitzaile. Denbora zatitzeko nahikeriak sortutako Urte Berria. Numero berri ba, hori, besterik ez, gertakisunen jarraitze... Jendea pozik dago.

Nik zenbait gauza ezin aaztu ditut.

Munduko gosea guda, diktadura, kapitalismoa... Noiz bukatuko ote dire?

Elduko ote da hoinkin bukatuko duen numero berria...?

Hau, da, nire kanta, batzuetan, gutxitan, letra aaztuzten ba zait ere, musika, beinere ez. Beasuna jan dut, bainan ondorenak, gusto txarra, oñazea, tristura betirako dut.

SAIZARBITORIA

Gure kanpoko itxura dela ta...

Nundik etortzen dira askotan gure naigabeak, gure bizitzaganako itxaropen txikia? Ez al-da gu nor geran, nora goazan, nora jo bear degun ez dakigulako? Gure eguneroko langintza makina baten eginkizuna dirudi. Gure barruko berri gutxitan jakiten degu, edo ez degu jakin nai... Kampoko itxurarekin bakarrik bizi gera.

Egia, gaur egunean munduak ia egunero eskeintzen digu gaztearen erretratoa: Pelikulak, idatziak, sikologoak edo moralistak dirala, gai au artzen dute beren liburu edo estudioak egiteko. Gaztedia onelakoa degu, gaztediak onela pentsatzen du... Gure erretrato onen aurrean askotan gure buruari galde egiten diogu: orrelakoak al-gera?

Gazteak bere nortasun bat arkitu nai du. Bainan askotan lan onek ez du bear bezelako bukaera izaten. Batzutan gure ustetako personalidade bat beste bateri ostua degu. Bestetan personalidadea izatea gure agintariaren esanak ez onartzea eta kontra egitea dala uste degu.

Norbera izatea, ez da personalidade bat beste bateri artea, edo kopiatzea, edo gendearen aurrean norbait bezela agertzea, baizik gure barruko sentimenduarekin, gure barrengo ideia ta polemakin akorde bultzatzea.

Bainan gure barrengo eskaerak aintzatzeko artzen alditugu? Geiunear ez. Bakarrik egoteak bildurtu egiten gaitu. Barruko su onek burua kixkaltzen digu. Eta jolaseria, lanera... jotzen degu. Ideia auzk erokeriak dira... Prolema oiren aurka ezin jokatu dezaket... Gendeak parre egingo lirake... Bildurtu egiten gera. Orreagatik kanpotik gendeari gustagarri zaion tankeran azaltzen gera. Zer egiten du gendeak? Guk ere orixe egingo degu. Errexagoa bai da.

Ezagutu gaitzen lenbizi geok, barrendik eta kanpotik. Billatuko ditugu guran alderdi onak, baioko gauzak. Gure prolema, sentimendu ta ideiarren artean nausketa bat sortuko da. Bainan saiatu gaitzen ideiarri bide bat ematen. Sentimenduari biontz leku bat opatzen eta polemaren-tzako erantzun bat arkitzen... Auxe eskatzen du gure barrengo naaspilla orrek. Asiera onekin pixkana pixkana gure nortasuna arkituko degu. Gure lanean alderdi txarrak ere izango dira, bainan oeri kontra egin eta jarrai. Onela gure personalidadea osatzen asiko gera, persona bezela desarrailatzen.

Iritxi propioak izan bear ditugu. Gendeak onela edo bestela pentsatzen dualako, guk ez diogu gendeari segi bear. Gazteak orrela jolasten dira, edo au egiten dutela... Gauza auzk onak ba-dira, ondo dago, bainan beste aldera pentsatzen ba-degu, adierazi, ta gure ideari eutsi bildurririk gabe.

Geon berri, geon errealdadea ezagutzen ez baldin-badegu ezin bizi gindezke mundo errealdadearekin. Eta bizi-tza bear dan bezela eramatez errealdadearekin bizi-tza da.

MIREN OLARREAGA

ASTETIK ASTERA

Berriz ere gure Eduardo Txillida'k irabazi du Alemania'n Inajiangintzako Sari handi bat. Zortzigarren aldiz, beraz, zortzi urtetan; zortzi urtez segidan urteror-terto, donostiar batek irabazten ditu munduko txapel-keta guziaz. Nork daki hau gure artean?

Euskaldunok dantza egiten omen dugu Ahuñamendi'ko tonforretan... Eta uste hortan azkenean gure egiñsturi, hor ari gera, jo ta ke, Ahuñamendi'ko gailurretan nork ongienik dantzatuko. Hortara ari gera gure indarrak ematen.

Bitartean Eduardo Txillida, gure artista bikainak, behin eta berriz irabazten du txapela atzerrian, irudigil-le guzien artean gailen geldituz. Makillarik ederrenak

eta opagarrienak biltzen ditu gure herriarentzat. Baina gure herria, hartzulotara eta zaharkerietara arras adi, ez da oharzten. Gure haunditasuna eta euskaltasuna bera mendi tonforretan ikusten dituelako, ez du bertako semearen egiazko haunditasuna erreparatzen. Txillida'ren makillarik ez baltira zezen-plazan eta izerdi-usalen artean irabaziak.

Hortan gera. Txillida dugu, ordea. Euskal Herri'ko gizonik haundienetako bat. Eta lotsagarria da merezi dituen txaloak eta ospeak ozenkiago gure herriko haundikiek ez egitea.

Ez da gaiñera hau lehenengo aldiz gertatzen. Jorje Oteiza dugu ere, lehen mailakotzat nun-nahi hartua; eta gure artean... zoratzat hartua eta zokoratua. Nika-nor Zabaleta nor ezagutzen du, gazteen artean batez ere, munduko jotzaileetan nagusi izanik ere?

Uxatu egiten ditugu gure gizon haundiak. Txantxe-tan hartzen ditugu, ahaztu eta zokoratu egiten ditugu. Zeren-eta ekonomari buruz yayoak ez baltira... Ez baltute ere "pratikorik" egin, eta ez apostutan parte hartu ere.

Txarrena ez da hori. Hortik datozen ondorioak dira txarrena. Munduaren orduan bizi diranak, alde batera uzten ditugu; azkenean ahaztu ere egiten gera berretaz. Eta, zer diogu? "Bai: euskalduna duk, ba dakik? Ardoa edaten ederki zekik. Oso euskalduna duk". Zozotzat hartzen gaituzte hortara. Eta merezia dugu!

Bide horietatik urrundu ez geran artean, ordea, turista-mordoentzako zulo bat baizik ez gera izango. Txillida lehenengo horrialdeetan eta euskaldun nagusiztat ikusi artean. Jai dugu.

Nola nahi dugu, bestela, gure gizon haundiak euskalduntasunari lotuak eta atxikiak izatea? Ezin ditek.

Jakiña: denen erruak aztertzen hasiko bagina, ba litzake denentzako zer esanik. Lerro hauek alpatuta dut herriki ez dagoela egiazko haundirik, gure herriko



hizkuntzatik aldendu diranen artean. Herri baten hizkuntzak duen balioa, normala da herri-xehak ez ikustea. Eta alde huntatik gauza garbia eta nabarmena da gure intelektualek aspaldidanik hartu duten erantzukizun larria.

Jakiña da ere gertatzen zaigukin gauza hauek eta Unibersidade oso eta euskaldun bat ez izateak, ba dutela alkarrekoik zer ikusi hesturik.

Baina gauzak horrela ere, zerbit egin ditek.

Txillida'ri eta Oteiza'ri, esate baterako, mundu guzian zehar irabazi dituzten merezimenduak eta laguntza merezi dituzte. Besterik ere merezi dute. Zer? Gure Artearen irakaskintza beren eskuetan jartzea, beren mailako unera-ikasgu Nagusi bat jartzea.

GOIHENETXE

Bestelakoak al gera?

Gazte dan bitartean, gaztearen oi egitea bear nai ta naiezkoa da. Nik, nai ta naiezkoa dut oi egitea, nere inguruan gertatzen ari denak, oiu egitera beartzen didate, egingo ez banu kixkaldu egingo nintzake. Nere barrengo biziak, korri, oi u egitera bultzatzen didate, korrika nola ezin ninteken asi, oiuka egitea dut bare bide bakarra. Nere oiuk gaztearen gana doaz.

Guri, gizonari gertutzen zaiguna ikaragarria da. Egunak eta egunak bear izaten ditugu korrika ekiteko. Batzuek lenago ekingo ditek, nola nai aiek ere urte bete osatuak izango dira, bere zankodaren gunean pisgor ibiltzerako. Ori mutiko burriñan izan da ere bete bear dan epea da, eten-gabe amaren magaleko epeltasunean daudenak, ez dute ausardirik izango korrika ekiteko, ta amaren maitasun biziak ere ez dit bultzatuko zartatekoak artera, naiago izango du bere basoetan euki oso txikia dan atzakiarekin. Berandutxo bear, bada kezkatuko da, semearen gelditasun,

korrika; bainan semeak bildur izango du, ta beti amaren eskua topa naiean ibiliko da. Ze karrari leendabiziko aldiz muturrez aurrera erortzen danean, berriz nork ibili arazi.

Gazteak, ezin egon gindezke beti amaren epeltasunean, oso atsegina izan aren, egunak oso goxoki igaro aren, gure belanetan kementa sumatzen degunean ibiltzen asi bearra dugu. Ekiten batez ere balantzaka ibiliko gera muturreko bat eta bi ere artuko ditugu bainan orduan, jarraitu bearra dago. Zoritxarreko atzera egiten duana, amaren esku billa joaten dana.

Ez gera aurrak. Oñez ikasteko garaiak gion zitzaizkigun, Gaur bide berriak urratu bearrean arkitzen gera; zeinen gutxi diran ordea etseko epeltasuna utzi nai dutenak. Beren izatearen aurka ba dijoaz ere, ondo bizi dirala iruditzen zaioez du muturrekoren bat arteko artziakun sartu nai. Ez dira konturatzen, muturreko orrek, ez dio-

epeltasun, ori dala ta, orduan bi egunean ikusi naiko du tela ezer txarririk ekarriko ta bai asko lagundu, barenen daraman gizona ager dedin.

Gu, zerbit egiteko guraian gaude, ta zenbait egin bear guk osatu bear ditugu. Asieran ez ditugula gauzak bear bezela egingo? ez zaio ajolik; gaizki egiñaz ere ikasten da, ta auzk digute indarra lendabizi, gaizki egin deguna bererrioz ez egiteko, ta aurrerantzean, egiten ari geran gautetan arreta geiago jartzeko.

Egin ezin dezakegun gauza da, lelo batzuek bezela gelditu —ez nik etzekial ori egiten— ni ez nauk orretarako gauza. Bainan inoiz saiatu al aiz? Saiatu adi ta irugarrengo muturrekoak artzen dekanean, ta ze egiten dukan.

Gazteak gera, korri, oi u egitea, izateak eskatzen duan gauza da, orren aurka ez gaitzela joan. Zartzarora iriten ba gera, orduan ez dugu kometik izango, esperientzia asko, ori bai.

INAKI BEOBIDE